

ARALARKO MALLOAK

Guillermo Roa Zubia

Sería estupendo que se animasen los infantiles y nos mandasen colaboraciones tan majas como ésta.

Klasea bukatu bezain laister, denok elkartu ginen. Ostirala zen eta plan guztiak egin behar genituen. Pentsatu genuen Igaratzan lo egitea. Hurrengo egunean Malloak egingo genituzke, noski Tuturre kontatu gabe. Den hori oso ongi dago, baina Amezketatik irten behar denez gero, lehen aurkitu behar genuena zen hara joateko era.

Eguerdian irten nahi genuen Donostitik. Logikoena zen Tolosara joatea, han trenea uzteko eta autobusa hartzeko. Baina ez dago autobusik ordu horretan. Asko hitz egin ondoren, asmorik gabe gelditu ginen, genuzkanak txarrak ziren eta.

Oso triste joan ginen etxera. Baina etxean, nire aita topatu nuenean, zer gertatzen ziztaigun azaldu nion. Esan zuen, nahi bage-

nu, berak kotxean eramango gintuzkeela. Lasterka denei deitu nien berria emateko.

Biharamunean, elkartu ginen. Motxilak bete beteak zeuden. Esatebaterako nireak 11 kilo pisatzen zuen. Guretzat hau izugarritzko pisua da. Kotxea askar mugitzen zen. Gure begiak Aralar bila zeuden. Bapatean, gris kolorezko masa bat agertu zen: Txindoki.

Eta bidaia amaitu zen. Amezketan geunden. Txindokiri begirada batzuk bota genizkion eta ibiltzen hasi ginen. Eguraldia oso aldagarria zegoen baina hori ez zen aitzaki ez joateko. Maiatza zen eta elur zati batzuk bazeuden oraindik.

Minasko bidea hartu genuen eta laister Anduizteko bordara heldu ginen. Handik


Uzkuiti mendia ikusten zen. Bapatean eguzkia agertu zen eta Uzkuitiren gailurra argitu zen. Bere gailur guztia hodeiak zeukan eta izugarri zegoen. Azken begirada Uzkuitiri bota eta bideari ekin genion.

Berriro euritzen hasi zen. Haizea gogorki jotzen zuen. Euriako kapak eutsezinak zeuden. Artubi mendiaren azpitik pasatzen zen bidea. Eta borda bat zegoen. Bordaren barruan, ardi hil bat aurkitu genuen. Hortik aurrera kapa gorde nuen, haize horrekin ez zuelako ezertarako balio.

Asko ibili ondoren, Igaratzan aurkitu ginen. Borda batetan jarri genuen «lo tokia». Sua piztu nahi genuen, horregatik egur bila joan ginen. Eta bordara itzultzerakoan, euria hasi zen. Nahiko zaila zen egurra biltzea, dana bustita zegoen eta.


Meza entzuteko atera genituen papera batzuk otoitz eta abestiz beteta. «Meza» horren ondoren, afaldu genuen. Dena atera genuen harrizko mahai baten gainean. Eta afaldu ta gero, jai txiki bat egin genuen, kitarra batekin. Sua itzali eta lo egitera. Ze goxo nengoen saku horren barruan!

Gau guztian, haizearen soinua entzun zen. Plastikozko poltsa bat haizearekin jolasten zen. Nire begiak itxita zeuden baina nire buroak lan egiten zuen... «Hor goian oso hotza



*Intzeko Torrea
(Irumugarrieta) 1.427 m.
Presenta una
vertiente rocosa*

Paso de Balerdi, la cumbre detrás.



egongo da. Baina bihar... baina bihar...» Azkenean lo egiten dut, eta nire lagunak ere.

Hodeiak gau guztian zeruan. Egunsentia. Bazen ordua! Gaur da Eguna. Lainoa gure zain dago bordaren atarian. Nire termoren kafesnea hoztu egin da. «Norbaitek, ba al dauka zerbaite bero oraindik? Bai? Emaidazu piskat. Nik baditut sagar batzuk. Dana prest, ezta? Goazen». Ibiltzen hasi ginen. Bapatean elurra erortzen hasi zen! Izugarritzko hotza.

Laino harekin ez zen posible bidea aurkitzea. Dena den ez ginatete gelditu. «Goazen gora.» Elurra zegoen. Arrapaladan ikusi genuen buzoï bat. Ez dut gogoratzen nola zuen izena baina badakit bere garaiera 1.200 metrotako baino handiagoa zela. Atera genuen mapa bat eta konturatu ginen beste bide bat hartu genuela. Berritara behera joan ginen. Piskat ezkerretara jo genuen, lainoa ireki zen eta ondo gindoazela konturatu ginen.

Azkenean laino guztia desagertu zen. Eta gure aurrean Intzako Torrea (Irumugarrieta) agertu zen. Elurra ez zen gogorki erortzen eta haizeak ezkerretik jotzen zuenez, nire arroparen ezkeraldea txuria zegoen. Hartu genuen aristak zuzen-zuzen eraman gintuen gailurrera. Hain hotzez nengoen han, ez nuela argazki-makina atera eta hau benetan akatz bat da. Hau da Aralarko tontorrik garaiena: Intzako Torrea (1.427 m.). Orain aristatik behera eta Aldaon egitera. Erdi korrika joan ginen pixkat berotzeko.

Berritara lainoa sartu zen, baina ez hain itxia. Lepora heldu ginen. Handik ikusten zen Aldaonek daukan pareta handi hori. Norbaitek esan zuen: «Ze ondo dagoen hau eskalatzeko.» Eta handik aurrera eskaladari buruz hitz egin genuen. Aldapa nahiko gogorra izan zen eta harri batzuetan ekilibrio pixkat egin ondoren gailurrera heldu ginen. «Zer jartzen du hemen?... Aldaon-1.390 m.» Argazki bat egin eta aurrera. Bapatean eguzkia irten zen. Eguraldia oso kurioso zegoen. «Eguraldia eroa al dago?» «Bai!»

Beoin oso luzea da. Niretzat malloaren erdia da. Aldaonetik Jaitsi ginen eta Beoin arteko lepora eta handik azken begirada Aldaonentzat. Baina ze polita! «Ez al dizu pareta famatu bat gogoratzen?» «Agian Eigerkoa?» «Bai!!!» Benetan Eiger ematen zuen. Argazki bat atera nion paretari.

Aldaongo pareta ahastu eta «bretxa» bat ikusi genuen. Handik beheko arana ikusten zen. Benetan oso garai geunden. Gelditu nintzen eta puntu mugikor batzuk ikusi nituen. «Putreak diral!!!» Une hartan zeruan nengoela zirudien, putreak nire azpitik bait zenbiltzan. Beste argazki atera nuen. Hainbeste argazki bat atera ondoren bidetara ekin nion. Besteak aurrean zeuden.

Nekatzen hasten nintzen. Beoin oso luzea zen: ia bukaezina. Berritara euria. Baina oso gutxi. Eta bakarrik gelditu nintzen. Denak ni baino azkarrago zebiltzan. «Eeehhh!» Erantzunik ez. «Eeeehhhhh!!!» Haizeak nire kontra jotzen zuen eta horregatik haiek ezin zuten niri entzun. Euria berritara gelditu zen.

Aurrera joatea erabaki nuen. Ehun metro ibili ta gero ikusi nituen; nire zain zeuden... Gailurrean! Beoin-130 m. Gailurrean beste argazki bat, eta aurrera. Lainoa ireki zen eta izugarritzko tontor bat ikusi genuen. Unkiturik gelditu ginen. Txindoki Jauna zen. Beste argazki bat.

Aldapa oso azkar joaten zen beherantz. Ezin genuen hitzik atera. Hain polita bait zegoen Txindoki Jauna! Hodeizko txapel horrekin. Orduan konturatu ginen zergatik batzuk deitzen zioten «Gipuzkoako Zerbino». Dena den beste mendi bat genuen gure aurrean: Oakorri-1.170 metrotakoa.

Oakorriko aldapa gogorra zen baina ez nintzen atzean gelditu. «S» egiten igo ginen. Gure motxilak ez zeuden hain beteak, eta horrek lagundu gintuen. Laister topatu ginen mugarekin. Alanbrezko balla bat zen, Intzako Torrean bezalakoa. Ia gailurrean geunden eta bakarrik faltatzen zitzaigun balla zeharkatzea. Horri «kuento» asko eman

genion: «Orain zazpigarren graduko pasua salbatzen ari gara». Irribarrez heldu ginen gailurrera. Rutinazko argazkia atera eta behera. Argazkian denak agertzen dira aurpegi luzekin (ni ez nago argazkian, argazkia neuk atera nuelako). Behera joan ginen. Lepora iristerakoan eguzkia atera zen.

Gure aurrean izugarritzko aldapa bat zegoen. Artubikoa zen. Baina gu aldapa horren gainean. Beste metro batzuk eta... Artubi-1.265 m.!!! Hemen geldituko gara. «Eta Balerdi... ZER?... Hemen utziko dugu dana eta Balerdira joango gara».

Mallozakar deitzen diote. Mendi honetan, igotzeko, jaitsi behar da paso bat duela eta paso horren bukaeran dago tontorra. Paso honek bi aldetik, amildegia dauka. Ezkerrekoa txikia da eta hor hasten da basoa. Eskubikoa da arriskugarriena. Ez da bertikala baina erortzen bazara, ez dago modurik gelditzeko. Dena den, nahiz eta arriskutsua izan, erreza da pasatzen. Kontuz ibili ginen eta laister pasatu genuen. Tontorrean badago buzoï bat tanbor baten antza daukana. Gurutze bat ere badago. Gailurrean izugarritzko argazki batzuk atera nituen. Buzoia erdoitsu zegoen, baina bazeukan kolore berezi bat zeruko urdinarekin oso ondo zegoela. Berritara ikusi genituen putreak hor behian. Artubira Itzuli ginen. Balerdik 1.179 m. ditu eta aran osoa bere menpean zegoela ematen zuen.

Balla pasatzerakoan argazki bat egin nion Txindokiri... Nola ez! Balerdiren puntatik malloak ikusten ziren. Jaitsi behar dugu. Berritara Txindoki gure aurrean zegoen.

Baina azkenean Amezketan geunden... Agur Malloak... Agur Aralar... Autobusetik ikusten zen Txindoki. «Zein da Aralarko mendirik politena?» «Denak; bakoitzak dauka bere bereiztasuna» erantzun nion.

Treanean Ernio ikusi genuen. Dana bukatu zen hurrengo igandera arte... Astelehenean hitzik ez. Abentura hura gurea bakarrik zen. Ez al da ona abentura horiek edukitzea?

Perspectiva general de Malloak desde el valle de Araiz.

Guillermo Roaren argazkiak.

